

FUNTSEZKO JARDUERAK

Haurren beharrak asetzeko beharrezko diren profesionalen eraginkortasuna, gure enpresaren eta hornitzaileen arteko harremana zaintzea, bezeroei eskaintzen dizkiogun zerbitzu eta arreta aproposa dira gure balio proposamena gauzatzeko funtsezko jarduerak.

- **Profesionalen eraginkortasuna (umeei dagokionez):**

Haurrek, jarduera bereziak egiteko, edo arazoren bat izatekotan laguntza izateko, bi haur hezitzaile egongo dira haien eskura. Behar bereziko haurrei dagokionez, espezialista bat egongo da gutxienez, eta bi laguntzaile izango ditu, hezitzaileak bi hauek ere.

- **Bezeroari arreta:**

Arreta ondo zaindu behar dugu, haurrekin eta familiarekin lan egiten dugun aldetik. Haurrak gustura sentitu behar dira, eta gurasoek ere ziur egon behar dute ondo egongo direla gurekin. Irekita gaude kritikak entzutera, bai bezeroengandik, bai bertan lan egiten dutenengandik.

- **Plataforma:**

Sareko jarduerak ere garrantzi handia izango dute. Izan ere, familiek aukera izango dute gure lan egutegia ikusteko, eta horrela, ospakizun berezietan erreserbak egin ahal izateko.

- **Hornitzaileekin harremana:**

Gure balio proposamena gauzatzeko beste elkarte batzuekin (*Arabako Artisan Elkarte*, *Gaubea Centro Ecuestre*) kolaborazioan aritzen garenez, puntu garrantzitsua da gure arteko harremanak zaintzea.